

hainbat aburu

Ondoko lagunak


Imanol LAZKANO

Zer moduzko lagunak dira ondoak dituzunak
Lehendabiziko Sebastianen aldera nahi det zuzendu eta ahal bada ez dut egin nahi ez ipini ta ez kendu inoiz edo behin esaten digu lotsa gehiegi omen du hori horrela baldin bada ere bapo disimulatzen du

Beste hurrengo buru zabal hau jaioa degu Osintxun golfo handi ta herri txikia nahi duenikan ezin du bere sermoirik ez al dezute zuek inoiz ere entzun bertsolaritzan hasi zen baina frailea izan behar zun

Peña hau degu gure artean Athleti zale handia hor ikusten da luzea dula usai hartzeko makina Bilbo aldean ongi baitago honelako kaskarina hemen nabarmen gelditzen da ta han beste danen berdina

Mañuren pertxa atzekaldetik ikusitzen da ondona munduan berau bakarrik degu klase hontako gizona anka zabalak gerri altua ta bizkarrean bonbona txikia zala seaskan partez otarran baten egona



GAIA: Zer moduzkoak dira zure ondoan dituzun lagunak (Peñagari-kano, Gorrotxategi, Mañukorta eta Lizaso).

ilargian

Big Bang

Trigonometria eta teologia, karikatura klasikoan ongi nabaritzen den bezala, era bereko dabilta, barruan begi borobila daraman triangelua erakusten dizuet hain zuzen. Testamendu Zaharrak ados ez omen zegoen, ez ziren elkar egokitzen, eta beraz Biblia desberdinen araueran gizakiaren aroa luzatzen eta laburtzen dela egiazta daiteke: Big Bangengandik datozkigun teorietan gauza bera gertatzen da. Beharbada garai informatikoa, bit eta chip sekulako bolada bere Einsteinen zai dago.

Einstein, dirudinez, oker zebilen bere erlatibitateaz. Bapo. Zientziarekiko masmedietan egunero katologia hutsa, bere bi zentzuetan eta abar. Hawking —ko txaua— ez dabil ondo eta hiruzpalau astronomoek berea gezurtatu diote dagoeneko, milaka liburuak saldu eta gero. Eztakigu ze tiradak izaten zuten Bibliak Abraham eta Moisesen egunetan, baina Jainkoaren iradokimenez eginda badaude, norbaitek kriston kalamua sartu digu. Esaterako, alejandrina delakoak gizakiak 7.703 urte daramatzala munduan kalkulatzeko duen bitartean, hebreak 6.085 ematen digu, samaritanak 6.386 adierazten duelarik. Determinismo mozorturik arrodutzen du planetak eta non, noiz eta zer gertatzen bila idazteun errazionala proposatzen dio duela anitz mendebete galdera berberak bere buruari egiten dizkionari. Aingeruen sexuaz eztabaidatzea besterik ez da Big Bang polemika, eta Big Bang, berriz, Jaungoikoari eman diogu azken tebeozko (Big Bang da Flash Gordonen aurka) izena.

Bizantinoek ez zuten Jaungoikoaren sexuaz hautematen auzartzen. Patriarkala unibertsua zela zematzen eta kitto. Beste mitoen artean, Euskal Herrian Big Bangi eman genion jotzeak andragintea hondatzen du. Zalan-tzarik gabe, Jaungoikoaren neologismotzat har daiteke. Jentilek kristauak zekarkieten kosmogonia ikusgarria zehatzki euskaratu zuten. Jentilen denboretan emakumea —etxeoandrea— baratzan geratzen omen zen, gizona artzangoa zihardu elarik. Emakumezta eguzkia eta gizonzta izarrak. Selenitikoak benetan dira arrak herri honetan. Ilargi betea Jaungoikoaren —jaun, azpimarra dezagun— begia bibiliko, diasporikoa bihurtu zen. Ehizari ekiten zion jaunbehekoak baita noizbehinka gatazkari ere. Ekuazioak, halere, ez dute sexurik, lehen bistan behintzat, eta beraz hain anbiguoak, hain androginoak den Big Bang berbak arren teokrazia apur lezake. Zientzia non, noiz eta zergaitik enigmata geratzen den bitartean, gizakiak, ingurugiroaz kezkatunik, nor gaineratu du bere artegatasunera. XIX. mendea erlijiosoa izango da ala ez da izango horoskopoa zabaltzen omen da zientziaren jakitasunak ez ditu auzentzen artean. Egoistak zahartu samar omen egongo dela pentsatzen du. Datorren belaunaldia konpon dezan, geuk konpondu genuen bezala Hiroshimako Big Bangen ondoren. Jainkoa bere hipotenusa galtzen ari da.

Rafael CASTELLANO

Eskura daukagun egunkaria

Urte luzetan amets soila zan digu euskarazko egunkaria. Ametsarekin batera, gogo bizia. Ametsetako gauza gogoan edukitzetik eskura edukitzera tarte handia dagoela ondotxo dakigu, ordea. Ametsetako egunkaria eskurako bihurtu ahal izateko urrats garrantzizkoak eman dira dagoeneko, CIESek eginko azterketa soziologiko hartatik hona. Azterketa hura zeharrezkoa zen; zirikatzaila hartatu zen gutxienez; oinarri ona ere bai. Odrutik ona gogoan asmo bihurtu da; asmoa, egitamu, egitamu, egitarau; egitaraua, ekintza. Eta ezaguna da asmoa hura: Ezina okinez gure Laster izango digu euskarazko egunkaria. Egunerol euskaldun gehienon asmoa eta gogoan zen euskal egunkaria asmo finko bihurtu izan zen urteko erdi ingu-

ruan hogeitabost bat lagunon artean, Donostiako San Tomás lizeoan. Lehen urratsa egina zegoen, eta aurrerakoak egiteko arabakia hartuta. Bi hilabeteren buruan hogeitabost lagun haiek ehun bat lagun bihurtu ziren Durangoko bileran. Eta asmo hura egitamu gertatu zen. Han onarturiko egunkariaren 11 abiaburuak helburu segurura jotzen zuten. Hirugarren urrats nagusia: 70 laguneko Talde Eragilearen bilera Donostian: egitamu hura egitarau bihurtzen da, hiru batzorderen eskuetan: Batzorde Bateratzailea, Kazetari-Batzordea eta Ekonomi-Batzordea, egunkariaren proiektua lantzeko, berorren alderdi guztietatik. Hiru hilabeteko lan eutsia eta sakona, hiru batzordeek egin zutena. Apirilaren zaz-

pian, Batzorde Eragileak euskal egunkariaren proiektua aztertu, kritikatu eta zuzendu ondoren, proiektu baino gehiago bihurtu zuen: ekintzabide sozial, herritar guztiona. Odrutik hona herritarren eskuetan —eta agintarienean— dago euskaldunon egunkariaren proiektua, herritar guztion ekimenari deika. Bada hilabete bat behintzat euskaldunon guztion ametsa herritar guztion ekintza bihurtua dela, Euskaldunon Egunkariaren aldeko kanpaina soziala abiatua denetik, eta Talde Eragilea hiru Batzorde nagusitan eta hiru batzordeek beste mila batzordetan zabaldu direnetik, herrietako kanpaina eratu eta bultzatzeko. Gaur egun euskaldunon ametsa zena herritarren ekintza bihurturik dago. Euskal egunkariaren proiektua

Euskaldunon Egunkariaren aldeko ekintza konkretua, zabaldua eta indartsua da gaur egun. Gelditu ezina. Ekintza hau ekintzaldi luzea da; denon artean eutsi beharrekoa, gogoz eta tinko eustea merezi duena. Ze horren ondoko urratsa Euskaldunon Egunkaria kaleratzea eta euskaldun guztion eskuetan ipintzea da. Udazkenean gertatuko da hori. Eta aurtengo urtea Euskaldunon Egunkariaren urtea izango da. Kazetari baten diseinu teknikoa baino askoz gehiago da Egunkaria Sortzen-en Euskaldunon Egunkaria. Talderen baten proiektua baino askoz gehiago da dagoeneko: Herritarren ekintza da. **Paulo AGIRREBALTATEGI** *EKItza lehendakaria* *Egunkaria Sortzen-eko partaidea*